

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Itziar Marfínez Iregui
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko apirilaren 19an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Urrutia jauna eta Urzelai andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día diecinueve de abril de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Urrutia y la Sra. Urzelai.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ez dago..

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1.- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko apirilaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondorengo erabakien gaineko berri zehatza eman da:

ALKATEAREN DEKRETUA B11/00272 zenbakiduna.(2012KALI001)

Idazkari-kontuhartzaileak osatu duen Eskoriatzako Udaleko 2011ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/ 2003 Foru Arauak emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Udalaren 2011ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako fondo likidoak, 2011-12-31n:	1.184.591,06
2.- Kobratu gabeko saldoak,2011 -12-31n:	2.008.844,39
Aurrekontuko zordunak:	550.963,25
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.457.881,14
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n:	792.094,74
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	339.434,60
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	452.660,14
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	
4.- Diruzaintzako soberakin gordina (1+2+3):	2.401.340,71
5.- Saldo kobragaitzak:	198.027,16
6.- Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5):	2.203.313,55
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina:	206.403,88
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (6-7):	1.996.909,67
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	(-) 936.565,48
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	(-) 217.309,40
11.- Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	592.982,06
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	952.389,12
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	391.496,30
14.- Txerta daitezkeen kreditu soberakinak:	1.255.967,43
15.- Txertatu ezin diren kreditu soberakinak:	421.997,08
16.- Kreditu soberakinak, guztira (14+15):	1.677.964,51

Bigarrena.- 2011ko Aurrekontua likidatu ondoren, behin-behineko onartuta dauden kreditu aldaketa espediente hauek behin betiko onartzea:

ESPEDIENTE ZENB.	BEHIN-BEHINEKO ONARPEN DATA	MOTA	ONARPEN ORGANOA
2	2012/03/01	Txertaketa aurreratua	170 zenb. Alkate Erabakia

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Laugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

Eskoriatza, 2012ko martxoaren 23an.

Alkatea

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B12/00281

DATA: 2012/03/26

GAIA: KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (inkorporazioa)

ESPEDIENTEA: 2012KKRI0002

Eskoriatzako Udalaren 2012ko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, Hazienda eta Kontuen batzordeburuak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientean egindako gainerako jarduketak ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Bat.- 4 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2012ko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	Euroak
1	Pertsonalaren gastuak	
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	42.742,03 €
4	Transferentzia arruntak	2.800,00 €
6	Inbertsio errealak	446.628,81 €
7	Kapital transferentziak	
8	Aktibo finantzarioak	
9	Pasibo finantzarioak	
TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA		492.170,84

SARRERAK-FINANTZAKETA

Cap.	Denominación	Euros
8	Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina	492.170,84
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		492.170,84

Bi.- Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da, bestelako tramite barik; beraz, Fondoen Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 26an.

ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B12/00286

DATA: 2012/03/28

GAIA: KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

ESPEDIENTEA: 2012ko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketa

INTERESDUNA:

Idazkari-kontuhartzaileak 2012ko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).

Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.-. Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2012ko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 39.697,17 €.

Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 28an

ALKATEA,

ALKATE ERABAKIA

ZKIA: 327

DATA: 2012.04.17

Espedientea: 2012KKRA0001

GAIA: Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 6 zenbakidun espedientea onartzea

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dienez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikuluan eta 2012ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikuluan jasotako eskumenak erabilia, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:
KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak.	110.979,82 €
4	Transferentzia arruntak	26.300,00 €
6	Inbertsio errealak.	114.000,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA...		251.279,82

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	GEHIKUNTZAK
8	Finantza Aktiboak	251.279,82 €
GUZTIRA		251.279,82 €

Bigarrena.- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2012ko apirilaren 17an.

ALKATEA

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Ez da egin beharrekoa, gai zerrendan sartzeari proposatu behar zen Atxorrotzei buruzko gaiaren gaineko erabakia Alkate erabakiz hartu delako.

4.- ZENBAIT LANPOSTURI IZENDATUTAKO DEDIKAZIO BEREZI OSAGARRIA: PROPOSATUTAKO ALDAKETEN AURREAN LANGILEEK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK. ALDAKETA ERABAKIA.

2011ko egutegia egiteko bere garaian onartutako irizpideen arabera, zenbait lanposturi izendatutako osagarriek 2011ko abenduaren 31ra arteko indarra zuten, eta beraz, erabaki zen

2012an portzentajeak berrikusiko zirela lanpostu bakoitzaren egutegiaren garapena berraztertu ondoren, eta lan hori udalbatzak berak egingo zuela edo, bestela, enpresa batek.

Erabaki horiek betez, egungo gobernu taldeak, aurreko gobernu taldeko zenbait kideren laguntzarekin, egutegiak aztertu zituen. Azterketa horren ondorioz egin zen 2012ko urtarrilaren 12an Pertsonal batzorde informatzaileak hartutako erabaki proposamena. Hona hemen proposamena laburtuta:

LANPOSTUA:	Indarrean dagoen dedikazio osagarria	1592 ordutik gora egindako orduak, gutxi gorabehera	Proposatutako dedikazio osagarria
Brigadako arduraduna	% 24	167	Ez aldatzea
Eginbehar anitzetako langilea (Igor)	% 18	150	Ez aldatzea
Eginbehar anitzetako langilea (Pablo)	% 18	87 (maiatzetik aurrera) Urtarriletik apirilera osagarririk ez.	12%
2 Peoi-lurperatzaile	% 24	Zigor: datuak ez dira argiak Loiti: 62 Batez beste 10/12 lurperatze urtean	12%
Kontserjea (Cirilo)	% 12	73	0 konpentsazio ekonomikoa gorabeherarik izanez gero
Kontserjea (Carlos)	% 6	57	0
Kultura teknikaria	% 12	157	mantener
Zerbitzu ekonomikoetako teknikaria	% 12	251	mantener
2 udaltzain	% 24	Andoni: 65 Ibon: 80	12%
Teleskoko arduraduna	% 12	Ez du fitxatzen	0

Proposamenak eragiten dien langileei proposamena jakinarazita, alegazioak aurkeztu dituzte langile hauek:

- Cirilo Perea Ortuñok.
- Iñaki Loti Mendizabalek
- Igor Arrate Somék y Francisco Somé Zaldúak.
- Zigor Arabaolaza Muguruzak
- Ibon Segura Arcauzek
- Andoni Azkarate Ortuetak
- Pablo Ocariz Acordagoitiak

Aurkeztutako balorazioak ikusi eta aztertu ondoren, Pertsonal batzorde informatzaileak ondorengo erabaki proposamena egin du.

EBEPeko 37. artikulua betez, erabaki proposamen hori sindikatuetakako ordezkariekin negoziatu da, baina, ez da inolako akordiorik lortu.

Aurkeztutako diktamenaren arabera, eta Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Cirilo Perea Ortuño jaunak, kirol instalazioetako A kontserjeak, hainbat galderentzako erantzuna eskatzeko egindako alegazioei dagokienez, honako hau erabaki da:

A.- Alegazio egileari adieraztea dedikazio osagarriek bakarrik lanaldiaren luzapenari erantzuten diotela eta ez dedikazio faktoreari.

B.- Bere galderak modu honetara erantzutea.

1. *Lanalditik kanpo aurkitzeko moduan egon behar ote den:* bai, betetzen duen lanpostuak puntuekin baloratuta duelako dedikazio faktorea. Kirol instalazioetako A kontserje lanpostuak lehentasunezko eta noizbehinkako dedikazioa du (titularra aurkitzeko moduan egon behar da bere lanalditik kanpo, eta, aginduz gero, bere lanpostura joan).
2. *Egunean 7:30 ordu eginda, 13 ordu gehiago ateratzen direla:* alegatzen dituen gainerako ordu horiena konpontzeko nahiko da egutegian sarrera 7:15ean jartzea zenbait aste edo hilabetetan.
3. *Kirol denboraldiko ostiraletan 22:30ean ixten dela 22:00etan itxi beharrean:* kontu hori konpontzeko goizez tokatzen zaizkion asteetan beranduago sar daiteke edo kirol taldearekin entrenamenduak 21:30ean amaitzea adostu.
4. *Lanalditik kanpo kirolarekin zerikusirik ez duten ekintzak direla-eta, dedikazioa normalera jaisten?* Berriz ere gogorarazten da dedikazio faktorea ez dela ukitzen eta lanpostu horrek noizbehinkako lehentasunezko dedikazioa duela.
5. *Osakidetza gaiari buruz (igerilekuaren garbiketa), lanalditik kanpo orduak egiten dira eta hondartza garbitzen da igerilekua itxi ondoren. Berdin jarraituko da?* Unean-unean aztertu

beharreko kontua da, eta ordu horiek ohiko lanalditik kanpo egiten diren argitu; eta horrela bada, ordezkapena egiteko aukerarik dagoen ikusi.

Bigarrena: Igor Arrate Somé jaunak eta Francisco Some Zaldia jaunak jarritako alegazioak EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

Berraztertzen ari garen dedikazio osagarrien portzentajeak lanaldi luzapenei dagozkie bakarrik. Lanaldia eta dedikazioa puntutan baloratuta dauden faktoreak dira. Hala ere, baliteke "lanaldia" eta "dedikazioa" faktoreen egungo balorazioak ez islatzea errealitate bera osagarriak kenduko balira, eta gobernu taldeak uste du garrantzitsua dela lanaldi arrunt batean gehiegizko ordu horiek eginez gero, ordu horiek konpentsatzea.

Hirugarrena: Iñaki Loiti Mendizabal jaunak jarritako alegazioak EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

1.- Lanaldiaren luzapena, faktore kuantitatiboa dena, ez zen baloratu; lanpostuetako alderdi kualitatiboak baloratu ziren. Prozesuaren ondoren, lanaldia luzatzeagatik izendatutako osagarriak 2011ko abenduaren 31 baino lehen aztertuko zirela erabaki zen; eta, berandu bada ere, horretan gabiltza orain.

2.- Egungo gobernu taldearen irizpidea da lanak hobeto planifikatzea eta aparteko orduak murriztea. Noiznahi sortu daiteke ustekabekoren bat, baina, ahalik eta gutxien izan daitezen eta zerbitzuaren kalitatean eraginik izan ez dezaten saiaturako gara.

3.- Egungo gobernu taldeak konpromisoa hartzen du osagarriaren portzentajeak ez ezik, ohiko lanalditik kanpo egin beharreko ordu kopurua ere -osagarri horrek erantzuten diena- murrizteko. Orduen eta osagarrien murrizketa pixkanaka eta aldi berean egingo da. Aurten, B PEOI-LURPERATZAILE lanpostuari %12ko osagarria izendatu zaio, eta ohiko lanalditik kanpo eskatzen zaion ordu kopurua murriztuko zaio. Gainera, ez da onargarria orduak murriztea eta osagarria lehengo mailan mantentze, edo bai?

4.- Larrialdiengatik, matxurengatik eta lurperatzeengatik beharrezkoak izan daitezkeen orduak murriztu daitezke, kasu horiei aurre egiteko behar beharrezko denbora erabiltzen bada eta lanak ondo planifikatu. Irizpide horiekin, ohiko lanalditik kanpo lan egindako orduak konpentsatu egingo dira. Hasiera batean aurreikusitako baino ordu gehiago lan egiten baldin badira 2012an, 2013an konpentsatuko dira.

5.- 5. puntuan alegatutakoa egiaztatuko da, baina, hasiera batean esan behar da kontsolidatu zirenak soldatak izan zirela eta ez, osagarriak.

Laugarrena: Zigor Arabaolaza Muguruza jaunak jarritako alegazioak EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

1.- "Fitxatzeko erlojuaren" bidez orduak kontrolatzea irizpideetako bat da, baina, ez bakarria. Aurreko gobernu taldeak behar beste ezagutzen du gai hori eta horretan oinarritu da egungo udal gobernu taldea proposamena egiteko. Osagarriek lanaldiaren luzapena ordaintzen dute. Inoiz ez da esan fitxatetik ateratako orduak ez direla benetan lan egindakoak. Kontua da, eta horri erantzuten dio osagarrien murrizketak, 2012rako lanak hobeto planifikatu gura direla eta ordu horiek murriztu.

2.- Ez da egia osagarri horiekin lanpostuei eskatutako baliagarritasuna ordaintzen denik. Osagarriekin lanaldia 93 ordutan luzatzea ordaintzen da. Lanaldia eta dedikazio faktoreak dira

hurrenez hurren ordutegi eta baliagarritasun/bateragarritasun ezaugarriak baloratzen dituztenak. Beste kontu bat da bi faktore horiek behar beste baloratuta egotea osagarriak izendatu zirelako, eta lanpostu bakoitzari emandako puntuazioa oraingo bera ez litzatekeela izango osagarriak izan ez balitz. Horregatik, osagarriak kenduz gero lanaldia faktorea eta dedikazioa faktorea baloratu beharko dira berriz.

3.- 2011ko fitxaketak aztertu zirenean ikusi zen alegatzailearen kasuan ondorengo gorabeherak gertatzen zirela: egutegian oportetako 24 egunak eta aukerako 7 egunak bakarrik jarri beharrean, norberaren kontuengatik errekueratzeko beste bi egun ere jarri ziren. Urteko gainerako lan egunetan 1592 ordu lan egiteko, egunean bakarrik minutu batzuk gehiago egin dira. Horrekin, egunero lan egindako minutu gehiago horiek aparteko ordu moduan kontatzen joan dira lan egindako egunetan zein bajaran egondakoetan. 93 ordu horien kontura kontatu behar dira gaineratik egindako 15 minutu horiek? Ez, osagarriari dagozkion 93 ordu horiek ohiko lanalditik kanpo egindako lanetarako (adibidez, Sanpedroak) edo ustekabekoetarako edota larrialdietarako dira. Aurrez esandako guztiarengatik, ez da argi ikusten lan egindako orduen benetako izaera, hau da, ohiko lanaldikoak diren edo ez.

4.- Lurperatzeei dagokienez, bai, lan horiek ohiko lanalditik kanpo egin behar dira, baina, badaude bideak ohiko lanalditik kanpo lan egindako orduak murrizteko, egin daiteke: lurperatzeak direla-eta egin beharreko lan gehienak goizez egiten dira. Arratsaldean egin beharreko lanetarako nahiko da ordu bete horma-hilobietan egin beharreko lanak badira, eta ordu bi, panteoietan egin beharrekoak baldin badira. Azken urteetan, batez beste, 10-11 lurperatze egon dira, eta beraz, ez dira beharrezko izango gaineratik egindako hainbeste ordu.

Bosgarrena: Ibon Segura Arkauz jaunak eta Andoni Azkarate Ortueta jaunak egindako alegazioak, biak berdinak, EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

1.- Udaltzain lanpostu bat gehiago sortzearekin, gaur egun dauden udaltzainek izendatuta dituzten lanak gero eta gehiago direla ezkutatu daitekeela-eta, aztertu beharreko kontua litzateke. Ulertzen da lanak berak baldin badira eta langile gehiago izan, logikoena litzatekeela ohiko lanalditik kanpoko orduak murriztu ahal izatea.

2.- Udal honetako langileen urteko lanaldia, beste askotakoena moduan, hitzarmenean jasota dagoela eta guztientzako bera dela. Lanpostu batzuk lanaldiaren luzapena izendatuta izan dezakete, baina, egungo gobernu taldearen borondatea da ahalik eta gehien errespetatzea 1592 orduko urteko lanaldi normalizatua.

3.- Alegatzaileen irizpideekin bat gatz lanpostuei izendatutako osagarriak alde bien artean (Udala-langileak) urtero aztertzearekin, eta ohiko lanalditik kanpo benetan orduak sartu baldin badira ordu horiek baloratu eta konpentsatzearekin.

4.- Osagarri buruzko proposamena egiteko egutegiak ez ezik lanpostu bakoitzaren funtzioak ere baloratu dira. Eta, horretarako, "fitxatzeko erlojuko" datuez gain, aurreko gobernu taldeak emandako informazioa ere jaso da, eta esan beharra dago oso baliotsua izan dela.

5.- Kontua ez da "orduak sartzea sartzeagatik" gaineratik egin beharreko 93 ordu horiek betetzeko bakarrik. Kontua da lana ondo planifikatu eta antolatzea eta ohiko lanalditik kanpoko orduak ahalik eta gehien murriztea.

6.- Aurreko agintaldian erabaki bazen ere 93 orduen planifikazioa udal gobernuak egingo zuela ikusitako beharren arabera, gorabehera horren berri ez dio eman egungo udal gobernuari ez aurreko gobernu taldeak ez langileek. Hala ere, egungo gobernu taldearen irizpidea ez da aurrekoarena, eta ohiko lanalditik kanpo ahalik eta ordu gutxien egiteko asmoa du.

7.- Osagarrien berrazterketarekin ados ez egoteko arrazoiei dagokienez, honako hauek adieraztea:

- Ohiko lanalditik kanpoko ordua eta horien osagarrien murrizketa pixkanaka eta aldi berean egitea erabaki dela.

- Osagarri berrien proposamena "fitxaketa" baino irizpide gehiagotan oinarrituta dagoela.

- Gobernu talde hau ados dagoela lanaldia eta dedikazioa faktorea berraztertze eskararekin.

- Ez dela inolako arrazoirik ikusten bi lanpostu berdinei bi osagarri ezberdin izendatzeko. Jarraitutako irizpidea izan da osagarriaren % 12ko portzentajea ezartzea lanalditik kanpo egin beharreko orduak aurrean bertan murriztuko diren lanpostuetan. Portzentajea ez da aldatu 2012. urtean orduak murriztea bideragarria izango ez dela ikusi diren lanpostuetan.

- Balorazio prozesua oraindik ez da amaitu, lanaldia luzatzeagatik osagarriak aztertzea egiteke gelditu zen eta aurreko gobernu taldearekin batera egiten ari gara.
- Lanpostu batzuk izendatuta duten osagarri bereziak ez dio erantzuten UDALHITZEKO irizpideei, areago, baliagarritasuna dedikazio faktorean baloratu denean. Horren froga da lanaldia luzatzeagatik UDALHITZEK gehienez ere % 10eko muga jasotzen duela.
- Alegatzaileek diotenaren aurka, 2011n ez ziren lanaldia luzatzeagatik osagarriak negoziatu langileekin, Udalak bere kasa erabaki zituen. Aldiz, orain proposatzen diren osagarri berriak langileekin negoziatzen ari dira sindikatu etako ordezkarien bitartez eta negoziazio mahaiaren barruan (mahai horretan aztertu beharreko gaietako bat da).
- Kaltetutako langileen eta arduradun politikoen artean bilera egiteko egindako eskaerari dagokionez, ez da inolako eragozpenik jarriko bilerara joateko interesatuek horretarako deialdia egindakoan. Hala ere, aurreko puntuan esandakoa gogorarazten da.

Seigarrena: Pablo Ocariz Acordagoitia jaunak jarritako alegazioak EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

1.- Gobernu talde honen irizpidea da aparteko orduak zein lanaldia luzatzeagatik dauden portzentajeak pixkanaka murriztea. Ikusi izan da zenbait lanpostutan, lana hobeto planifikatuta, murrizketa hori 2012. urtean lortu daitekeela. Beste kasu batzuetan, osagarriak mantendu direnetan, ez da bideragarria ikusten murrizketak aurten hastea.

2.- Aurreko Udalak zergatik hartu zuen 3 urteko lana, balorazio bat egin, eta osagarri horiek ezarri lana herriaren beharretara egokitzeko, 8 hilabetetan neurri berri horiek alferrikakoak izan badira eskatutako azalpenak direla-eta, bidezkoa da erantzutea “beti dagoela zuzentzeko aukera”

3.- Osagarriak berraztertzeko ez dira bakarrik azken 8 hilabeteak kontuan hartu. Aurreko gobernu taldeak emandako informazioa jaso da eta horrek aurreko agintaldi osoko informazioa eman digu.

4.- Egia bada ere zaila dela larrialdiak aurreikustea, eta, beraz, baita planifikatzea ere, Alkateak brigadako arduradunari urteko egutegi bat egitea eskatu zion eta bertan egun bakoitzean zein langile egongo zen aurkitzeko moduan; eta egutegi horren zain denbora bat egon ondoren, martxoaren 9an aurkeztu da.

5.- Uste dugu hartutako erabakia ez dela etxea teilatutik hastea, baizik eta lana planifikatzeko irizpideekin hartu dela.

Zazpigarrena: 2012ko maiatzaren 1etik aurrerako eraginarekin ondorengo dedikazio bereziko osagarriak finkatzea.

LANPOSTUA	Proposatutako dedikazio osagarria
Brigadako arduraduna	Ez aldatzea
Eginbehar anitzetako langilea (Igor)	Ez aldatzea
Eginbehar anitzetako langilea (Pablo)	%12
2 Peoi-lurperatzaile	%12
Kontserjea (Cirilo)	0, eta ekonomikoki konpentsatzea gorabeherarik izanez gero
Kontserjea (Carlos)	0
Kultura teknikaria	Ez aldatzea
Zerbitzu ekonomikoetako teknikaria	Ez aldatzea
2 udaltzain	%12
Teleskoko arduraduna	0

5.- EAJ/PNV UDAL TALDEAK UDAL ANTOLAKETA ERREGELAMENDUAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENARI JARRITAKO ALEGAZIOEI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak jakinarazi du alegazioak jarri zituen taldeko bozeramaleak bilkura honetara ezin etorri izana adierazi duela, eta batzordearen proposamenaren aurka Iker Akizuk jarritako zuzenketak direla-eta, eskatu duela gaia berriz ere Pertsonal eta Gobernu batzordean jorratzea. Hori dela-eta, gaia aztertzeke lagatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartu da.

6.- "SANTA ANA KOMENTUKO KAPERAKO ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEA" PROIEKTUA ONARTZEA.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: "SANTA ANA KOMENTUKO KAPERAKO ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEA" izeneko proiektua onartzea. Proiektua IMB Arquitectos S.L.P. enpresak idatzi du eta 491.796,97 € gehi BEZaren %18ari dagozkion 88.523,45 €-ko aurrekontua du.

7.- "SANTA ANA KOMENTUKO KAPERAKO ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEA" proiektua: Kontratazio espedientea hastea: Administrazio baldintza partikularren baldintza agiria onartzea eta lehiaketa.

Hirigintza batzorde informatzaileak "SANTA ANA KOMENTUKO KAPERAKO ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEA" izeneko proiektuan aurreikusitako obrak kontratatzeke espedienteari hasiera emateko proposamena egin du.

Lehiaketa honetako aurrekontua 491.796,97 euro gehi BEZaren 88.523,45 euro da, hau da, guztira 580.320,42 euro.

Obra horien exekuzio epea 6 HILABETEKOA da.

Eskatutako sailkapena honako hau da: "C" taldea "D" kategoria, "J" taldea 2 azpitaldea, "C" kategoria.

Espedientearekin batera prozedura mugatuaren administrazio baldintza partikularren baldintza-agiria doa.

Ondorioz, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 109. eta 110. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrak, Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar Antzokia- gizarte eta kultur erabileretarako birgaitu eta egokitzeko 2. fasea” proiektuan aurreikusitako obrak kontratatzeko espedientea hastea, eta kontratazio espediente horri tramitazio arrunta ematea.

Bigarrena: Kontratua prozedura mugatuaz esleitzea. Kontratuaren lehiaketaren aurrekontua 491.796,97 € gehi BEZaren % 18ari dagozkion 88.523,45 € da.

Hirugarrena.- Sektore Publikoaren kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 110-2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, konpromisoa hartzen da kontratua finantzatzeko beharrezko kreditua kontsignatzeko datorren maiatzean izapidetuko den aurrekontu aldaketaren kargura. Hala ere, esleipena derrigorrezko aurrekontu kontsignazioa aurrez egitearen geldiarazte-baldintzaren menpe geldituko da.

Laugarrena: Baldintza administratiboen agiria onartzea.

Bosgarrena.- Lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen eskakizunetan iragartzea.

8.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO JARDUEREI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Berlaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta berlaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Euskararen normalkuntzarako diru laguntzak emateko araudia hasiera batean onartzea.

Bigarrena: Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata, iragandea edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena: Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

9.- ESKORIATZAKO ONDARE HISTORIKO-ARKEOLOGIKOA INDARTZEKO INBENTARIO PROIEKTOAREN IV. FASEA ONARTZEA: ATXORROTZ EREMUAN 2012KO KANPAINA. ESKUHARTZE ARKEOLOGIKOA, SENDOTZE-ZAHARBERRITZE LANAK ETA SOZIALIZAZIOA.

Gai hau Alkate erabakiz erabaki denez, eskatu beharreko diru laguntza eskatzeko organo eskuduna zelako, Alkateak gai zerrendatik kendu du gai hau.

11.- EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ERLIJIOEI OHZ-REN SALBUESPENA KENTZEARI BURUZ.

Merino jaunak ondoren transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

MOZIOA: ERLIJIOEI OHZ-REN SALBUESPENA KENTZEA

Juan Luis Merino Sanabria jaunak, Eskoriatzako Udaleko Ezker Anitza-Izquierda Unida Udal Taldeko bozeramaleak, talde horren izenean eta ordezkartzan, eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren babesean, ondorengo mozioa aurkezten dio Udalbatzarrari eztabaida dezan :

MOZIOA

Egungo krisi ekonomikoa, espekulatzailerek eta banketxeek sortua, aitzakia modura erabiltzen da herritarrengan ondorioak izaten ari diren neurriak hartzeko; eta bitartean, herritarrek langabezia maila handia, gero eta pobrezia handiagoa eta hainbat eta hainbat oinarrizko eskubide sozialen murrizketa arriskutsuak jasaten ari dira; eta horiekin batera, soldatak jaistea edo bere horretan uztea eta zenbait zergen igoera, horien artean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena (OHZ).

Rajoyren gobernuak defizit publikoa zuzentzeko hartutako lehenengo neurriak -defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premia- zko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuak- OHZ % 4aren eta 10aren artean igotzeko eskatzen die toki korporazioei.

Egoera horren aurrean, bereziki ezin justifikatuzkoak dira hainbat erakundeei egiten zaizkien zerga salbuespenak, bereziki, Eliza Katolikoari (ondasun higiezinaren jabe handiena) eta beste erlijio batzuei egiten zaizkienak.

Zerga salbuespen horien urteko balorea 900 milioi euro ingurukoa da, eta uste dugu ez dela batere justua krisi egoera honetan.

Aurrez esandakoarengatik, ondorengo erabakiak aurkezten dira Udalbatzarrak onar ditzan.

ERABAKIAK

1.- Eskoriatzako Udalak Espainiako Gobernuari eta Batzar Nagusiei eskatzen die Toki Ogasunen Legetik eta Ondasun Higiezinaren Zerga arautzen duen Foru Arautik OHZren (hiri eta landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan) salbuespena kentzea Eliza Katolikoari eta beste erlijio batzuei, eta baita horien erakundeei eta irakaskuntzarako eta erlijio proselitismorako zentroei ere.

2- Eliza Katolikoaren eta beste erlijio batzuen eta horien kideko erakundeen eta elkarten izenean Udal honetan erroldatuta eta erregistratuta dauden hiri eta landa ondasun higiezinaren errolda egitea.

3- Espainiako Estatuak Egoitza Santuarekin dituen hitzarmenak -bereziki, gai ekonomikoei buruzkoa- indargabetzeko (edo ez betetzeko) eskatzea Espainiako legebiltzarrari, erlijio-erakunde horrek ez baititu hitzarmenok betetzen. Era berean, Eliza Katolikoa autofinantzatzerara behartzea, aipatutako hitzarmenetan horrela izan behar dela jasotzen baita, eta horrenbestez, PFEZtik (errentaren gaineko zergatik) eliza katolikoari laguntza emateko laukitxoa kentzea.

4- Eliza katolikoak eta beste erakunde juridiko batzuk OHZren eta beste zerga batzuetan ezin justifikatuzko salbuespenak izan ez ditzaten, Toki Ogasunen Legean, Mezenasgo eta Fundazioen Legean eta tokiko arauetan eta autonomia eta estatuko beste lege batzuetan dagozkion aldaketak egiteko eskatzea Gorte Nagusiei.

Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 22an

Sinatuta: Talde politikoko zinegotzia

Juan Luis Merino Sanabria / Ezker Anitza-Izquierda Unida

Eztabaida egon da eta zinegotzi batzuek zer bozkatuko duten eta zergatik azaldu dute, eta Cantero jaunak hirugarren puntuan zenbait aldaketa egitea eskatu du. Merino jaunak onartu ditu Cantero jaunak proposatutako aldaketak. Hirugarren puntua honela gelditzen da:

3- Espainiako Estatuak Egoitza Santuarekin eta beste erlijio batzuekin dituen hitzarmenak -bereziki, gai ekonomikoei buruzkoa- indargabetezko eskatzea Espainiako legebiltzarrari. Era berean, Eliza Katolikoa eta beste erlijioak autofinantzatzera behartzea, aipatutako hitzarmenetan horrela izan behar dela jasotzen baita, eta horrenbestez, PFEZtik (errentaren gaineko zergatik) eliza katolikoari laguntza emateko laukitxoa kentzea.

Horrela, bototara jarri da mozioaren testua aipatutako aldaketekin.

Mozioa onartu da emaitza honekin: 4 boto alde (Alkate jauna, Petralanda jauna, Merino jauna, eta Cantero jauna), 2 boto aurka (Iregui andrea eta Herce jauna) eta 3 abstentzio (Martinez andrea, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna).

12.- GALDE-ESKEAK.

12.1.- Merino jaunak eskatu du idatziz jaso gura duela azkenengo osoko bilkuran egindako bi eskaeretako erantzunak: webguneari dagokiona eta Udal langileen prestakuntzari dagokiona.

Alkateak erantzun dio horrela egingo dutela.

12.2.- Ondoren, Merino jaunak udal artxibora sartzeko prozedura azaltzeko eskatu du.

Alkateak erantzun dio orain dela gutxi izandako gertaera bategatik artxibora sartzeko protokoloa finkatzeko beharra ikusi dela, eta baita bertara sartzen diren pertsonen erregistroa egiteko ere. Gai hori Agurtzane Orbegozorekin aztertzeo asmoa zutela Aste Santuaren ondoren, baina, Agurtzane bajaran dagoenez, ezin izan dela gaia aztertu. Adierazi du zerbait erabakitakoa jakinaraziko dela.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:20an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

No hay.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 13 de abril de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta expresa sobre las siguientes resoluciones:

DECRETO DE ALCALDÍA Nº B11/00272. (2012KALI001)

Visto el informe de liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2011, formulada por el/la Interventor/a de Fondos, así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las competencias que me atribuye la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa

RESUELVO

Primero.- Aprobar la liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio de 2010, y que presenta el siguiente resumen:

1.- Fondos líquidos de Tesorería al 31-12-2011:		1.184.591,06
2.- Saldos pendientes de cobro al 31-12-2011:		2.008.844,39
Deudores presupuestarios:	550.963,25	
Deudores extrapresupuestarios:	1.457.881,14	
- Cobros pendientes de aplicación:		
3.- Saldos pendientes de pago al 31-12-2011:		792.094,74
Acreedores presupuesto gastos:	339.434,60	
Acreedores presupuesto ingresos:	452.660,14	
Acreedores extrapresupuestarios:		
- Pagos pendientes de aplicación:		
4.- Remanente tesorería bruto (1+2+3):		2.401.340,71
5.- Saldos de dudoso cobro:		198.027,16
6.- Remanente de tesorería líquido (4-5):		2.203.313,55
7.- Remanente de tesorería para gastos con financiación afectada:		206.403,88
8.- Remanente de tesorería para gastos generales (6-7):		1.996.909,67
9.- Resultado operaciones presupuestarias del presupuesto vigente:		(-) 936.565,48
10.- Resultado operaciones de presupuestos liquidados en ejercicios anteriores:		(-) 217.309,40
11.- Ajuste obligaciones financiadas con remanente de tesorería		592.982,06
12.- Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada:		952.389,12
13.- Resultado presupuestario (9+10+11+12):		391.496,30
14.- Remanentes de créditos susceptibles de incorporación:		1.255.967,43
15.- Remanentes de créditos no incorporables:		421.997,08
16.- Total remanentes de crédito (14+15):		1.677.964,51

Segundo.- Una vez liquidado el presupuesto de 2011, aprobar definitivamente los siguientes expedientes de modificación de créditos aprobados provisionalmente:

Nº EXPEDIENTE	FECHA DE APROBACIÓN PROVISIONAL	CLASE	ORGANO DE APROBACIÓN
2	2012/03/01	Txertaketa aurreratua	170 zenb. Alkate Erabakia

Tercero.- Remitir copia del expediente de liquidación a la Diputación Foral de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.5 de la Norma Foral antes referenciada.

